

# IMQ-ren kode etikoa

Gobernu-sistema korporatiboa

---



**Bigarren edizioa**

Administrazio-Kontseiluak onartua 2024ko  
ekainaren 26ko batzarrean

## **ATARIKO KAPITULUA**

### **1. artikulua Helburua eta aplikazioa eremua**

1. IGUALATORIO MÉDICO-QUIRÚRGICO, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS-en ("IMQ" edo "Konpainia") kode etikoa, Konpainiaren Administrazio-Kontseiluak onartua, IMQ kudeatu, zuzendu edo bertan lan egiten dugunok bete behar ditugun printzipio etikoak eta norma orokorrak batzen ditu.
2. Kode Etikoa hartzailerik dira, beraz, IMQ-n kudeatu, lan egin edo zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztiak: administratzaileak, zuzendariak eta enplegatuak.

Jakina, Kode honetako arau guztiek ez diote eragiten Konpainiako profesional guztien jarduerari, baina, nolana ere, langile guztiok ezagutu behar dugu Kodea eta gure lanaren erreferentzia etiko gisa onartu behar dugu.

3. Kode Etikoa gain, erakundeak zenbait barne-arau ditu, eta guztiek ezagutu eta bete egin behar dituzte. Horiei guztiei buruz arituko gara hurrengo ataletan. Kode Etikoa eta Konpainiaren gainerako arauak nahitaez aplikatu behar dira IMQ-ren bulego guztietan.
4. Konpainiaren Kode Etikoa eta Arauak ez betetzeak ondorio larriak ekar ditzake, bai ez-betetzea egin duenarentzat, bai Konpainiarentzat berarentzat. Horregatik, funtsezkoa da guztiok ulertzea Kode Etikoa eta Konpainiaren Arauek duten garrantzia, eta ez ikustea traba edo formaltasun burokratiko gisa, baizik eta gure jarduna beti gidatu behar duten printzipio eta jarraibide gisa.

### **2. artikulua Indarrean jartzea**

Kode Etikoa IMQ-ren Administrazio-Kontseiluak onartu zuen 2016ko martxoaren 22ko batzarrean, eta 2016ko apirilaren 1ean jarri zen indarrean.

## **I. KAPITULUA IMQ-REN EGITEKOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK**

### **3. artikulua IMQ-ren egitekoa, ikuspegia eta balioak**

IMQ Euskadin liderra den osasun-aseguruen konpainia da, eta hala izaten jarraitzeko bokazioa du. Laurogei urte baino gehiagoko historia du, zerbitzatzen duen gizartean errotuta dago, eta bere jardura bere funtzionamendu-sistemaren eta bezeroekiko harremanen, bere erakundea osatzen duten pertsonen, hornitzaileen, akziodunen eta, oro har, bere ingurunearen ezaugarri diren printzipio egonkor eta sendoetan oinarritzen da.

1. IMQ-ren **egitekoa**:

- (a) Bere bezeroen osasunean ardaztu da, laguntza-bizitza osoan zehar lagundu die, eta zerbitzu arin, pertsonalizatu eta erabakitzailea eman die;
- (b) osasun-sistemaren bilakaera iraunkorrean lagundu du, osasun publikoaren aliatu eta laguntzaile gisa, eta osasunaren eta prebentzioaren sustatzaile gisa;
- (c) eta azpiegitura sanitario indartsu bat sortu du, baliabide aurreratuz eta erreferentziatzko profesionalen hornitua, kalitatean eta segurtasun klinikoan oinarritutako laguntza bermatzen duena.

2. **Ikuspegiari** dagokionez, IMQ-k lidergoa mantentzeko asmoa du Euskadin, osasun-aseguruetan, beste aseguru-arlo batzuetan jarduera esanguratsua eta errentagarria garatuz, eta bezeroei emandako zerbitzuagatik eta bere pertsonaldeagatik - talde motibatua, arduratsua eta konprometitua - izanez.

3. Hauek dira IMQ-ren **balio** nagusiak:

- *Lidergoa eta profesionaltasuna*, Konpainiarekin konprometitutako pertsonen eta profesionalen osatutako talde bat eraikitzeke lanean; taldea, zeinen motibazio nagusiak talde-lana, etengabeko hobekuntza eta pasioa diren.

- *Zerbitzuaren kalitatea*, bezeroei eskainia, lidergoari eusteko funtsezko elementu gisa, eta hobetzeko etengabeko eta mailakako nahia eskatzen duena.

- *Kaudimena*: ekonomikoa (hazkundera eta errentagarritasuna), soziala (iraunkortasuna) eta profesionala. Kaudimena, akziodunengan, bezeroengan eta, oro har, gizartean konfiantza sortzen duen marka izatea eragiten duena.

- *Etika eta gardentasuna*, erakundearen eta guztien jokaeran. Jokaera zintzo eta arduratsua, bai barne-mailan, bai ingurunearekin eta gizartearekin duen harremanean.

- *Osasunarekiko konpromisoa*, gaixotasuna sendatzeko ez ezik, gaixotasunak prebenitzeko eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko ere lan eginez.

- *Konfiantza*, Konpainiaren historiako hamarkadetan egindako ahaleginari esker sortua. Hurbiltasunaren, pertsonalizazioaren eta erabakitzeke gaitasunaren emaitza dena.

Balio horiek enpresa-kulturaren arloko barne-antolamenduaren erreferentzia nagusia dira, eta IMQ-ko profesional guztien jokaerak gidatu behar dituzte Gizartearen gobernuarekiko, merkatuarekiko, lanbide-ingurunearekiko eta gizarte-eta ingurumen-ingurunearekiko.

## **II. KAPITULUA JOKAERA PROFESIONALAREN PRINTZPIO OROKORRAK**

### **4. artikulua Printzipioen aipamena**

IMQ-k merkatuan, ingurunearekin eta interes-taldeekin osotasunez, zuzentasunez eta gardentasunez lan egiten du, eta bere gobernu-sistemaren jardunbide korporatiboen eta konpainiaren balioen arteko koherentzia sustatzen du.

Orobat, IMQ-ko profesionalen jokaera arautu behar duten printzipio orokorrak hauek dira:

- A. *legeak eta arauak betetzea*
- B. *errespetua*
- C. *zintzotasuna eta gardentasuna*
- D. *konfidentzialtasuna*
- E. *bikaintasuna eta profesionaltasuna*
- F. *gizarte-erantzukizuna*

### **1, atala. Legeak eta arauak betetzea**

### **5. artikulua. Legeak betetzea**

1. IMQ osatzen dutenek aplikagarri zaien indarreko lege-araudia, Kode Etikoa-ren printzipioak, gobernu-sistema korporatiboaren arauak eta IMQ-ren jardura arautzen duten oinarritzko prozedurak beteko dituzte, eta saihestu egingo dute, legea urratu gabe ere, Konpainiaren izen onari kalte egin diezaiokkeen eta haren negozioei edota irudi eta ospeari ondorio kaltegarriak ekar diezazkiekeen edozein jokabide.
2. IMQ-ko zuzendariak beren jardura-eremuei eragiten dieten arau-, administrazio- eta erregelamendu-xedapenak ezagutu beharko dituzte, barne-araudia barne, eta ziurtatu beharko dute langile guztiek beren lan-eginkizunari aplikatu dakizkiekeen lege- eta erregelamendu-betebeharrak, barne-araudia barne, ulertzeko eta betetzeko informazio eta prestakuntza egokia jasotzen dutela. Halaber, zintzotasunez eta osotasunez jardungo dute agintariekin dituzten harreman edo transakzio guztietan, eta ziurtatuko dute aurkezten dituzten informazio eta ziurtagiri guztiak, baita egiten dituzten adierazpen guztiak ere, egiazkoak, argiak eta osoak direla.

## **6. artikulua. Delituak prebenitzeko eta iruzurraren aurkako sistema**

1. IMQ-k prebentzio-kultura sustatuko du, eta Konpainia osatzen duten guztien etika eta jokabide arduratsuaren printzipioak aplikatzean legez kontrako egintzak eta iruzur-egoerak egitea zigortuko du, hierarkia-maila edozein dela ere.
2. Era berean, IMQ-k plantilla osatzen dutenentzako prestakuntza-programa egokiak prestatu eta ezartzea sustatuko du, Kode Etikoa ezartzen dituen betebeharretan, bai eta arrisku penalak prebenitzeko Politikan eta aplikatu beharreko gainerako legerian ezarritakoetan ere, gai horri buruzko ezagutzak eguneratzen direla bermatzeko behar besteko aldizkakotasunarekin.

## **2. atala. Errespetua**

### **7. artikulua. Giza-eskubideekiko eta askatasun publikoekiko errespetua**

IMQ-k Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta arlo horretan indarrean dauden nazioarteko itunetan aitortutako giza eskubideak eta askatasun publikoak errespetatzeko konpromisoa adierazten du..

### **8. artikulua. Diskriminaziorik ez, aukera-berdintasuna eta garapen profesionala**

1. IMQ-k bere langile guztien diskriminaziorik ezaren, aukera-berdintasunaren eta garapen profesionalaren kultura sustatu eta babesten du bere jardun-politiken bidez
2. Bereziki, IMQ-k plantilla osatzen dutenen arrazagatik, koloreagatik, nazionalitateagatik, jatorri sozialagatik, adinagatik, sexuagatik, egoera zibilagatik, sexu-orientazioagatik, ideologiagatik, iritzi politikoengatik, erlijioagatik edo beste edozein baldintza pertsonal, fisiko edo sozialengatik ez diskriminatzea sustatzen du, bai eta erakundean sartzeko diren pertsonen arteko aukera-berdintasuna ere.

Era berean, IMQ-k aktiboki sustatzen du gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasuna, bereziki enplegua lortzearekin, prestakuntzarekin, lanean igotzearekin eta lan-baldintzekin lotutako alderdi guztietan, bai eta ondasunak eta zerbitzuak eskuratzearekin eta horiek hornitzearekin lotutako alderdi guztietan ere.

IMQ-ko langile guztiek beren jardunaren bidez aukera-berdintasuna errespetatuko duen lan-giroa bultzatu behar dute beren jardunaren bidez.

3. IMQ-k baztertzen du indarkeria, jazarpen fisiko, sexual, psikologiko, moral edo bestelako adierazpen oro, baita laneko agintekeria eta langileria osoaren eskubide pertsonaletarako giro beldurgarria edo iraingarria sortzen duen beste

edozein jokabide ere. IMQ-k sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak sustatuko ditu, indarrean dagoen legediaren arabera.

4. IMQ-k sustatzen du bere langileek, hornitzaileek eta beste kolaboratzaile batzuek elkar errespetuz tratatzea; lan-giro eroso, osasungarria eta segurua bultzatzen du, lankidetzaren-espirtua gure jardueraren eguneroko jardunean arau garrantzitsua izanik.

## **9. artikulua. Familia-bizitza eta lan-jarduera uztartzea**

IMQ-k balioesten erantzukizun pertsonalen eta profesionalen arteko oreka izateak ditu langileentzat eta konpainiarentzat dakartzan onurak, eta, beraz, erantzukizun pertsonalen eta lan-erantzukizunen arteko oreka hobea izateko modua sustatu egingo du.

## **10. artikulua Intimitate-eskubidea**

1. IMQ-k langileen intimitate-eskubidea errespetatzen du, adierazpen guztietan, eta bereziki datu pertsonalei dagokienez.

Ondorioz, IMQ-k konpromisoa hartzen du langileen datuak eskatzeko eta erabiltzeko, baldin eta datu horiek beharrezkoak badira edo aplikatu beharreko araudiak hala eskatzen badu bakarrik.

2. IMQ-k ez ditu zabalduko erakundeko langileen datu pertsonalak, salbu eta interesdunek baimena ematen badute eta legezko betebeharra edo ebazpen judizialak edo administratiboak betetzeko beharrezkoa bada. IMQ osatzen dutenen datu pertsonalak ezin izango dira, inola ere, legez edo kontratu bidez aurreikusitakoez bestelako helburuetarako erabili.

Beren lanbide-jarduera dela eta, beste langile batzuen datu pertsonaletarako sarbidea duten langileek datu horien konfidentziasuna gordetzeko konpromisoa hartuko dute.

## **11. artikulua Laneko segurtasuna eta osasuna**

1. IMQ-k langileen osotasun fisikoaren babesari garrantzi handia ematen dio.

Horretarako, laneko segurtasun- eta osasun-programa bat bultzatuko du, eta indarrean dagoen legerian horri buruz ezarritako prebentzio-neurriak hartuko ditu, bai eta etorkizunean lan-osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan ezar litekeen beste edozein neurri ere.

2. IMQ-ko langileek lan-giro osasuntsua, segurua eta eraginkorra izaten lagunduko dute, eta, horretarako, arretaz beteko dituzte laneko segurtasunari eta osasunari buruzko arauak eta gomendioak, laneko arriskuak prebenitzeko eta minimizatzen.

## **12. artikulua. Langileen hautaketa, ebaluazioa eta igoera**

1. IMQ-k helburu du arreta profesionala bermatzeko giza talde kualifikatu bat kontratatzea eta mantentzea.
2. Oro har, IMQ-ren hautatu, kontratatu, ebaluatu eta karrera profesionala garatzeko prozesuak objektiboak eta gardenak izango dira, hautagaien merezimendu akademikoak, pertsonalak eta profesionalak eta IMQ-ren beharrak kontuan hartuta, betiere hautagaien aukera-berdintasunaren, lanbide-kualifikazioaren eta gaitasunaren printzipioaren arabera.

## **13. artikulua. Ingurumenarekiko errespetua**

IMQ-k ingurumena ahalik eta gehien errespetatuta garatzen du bere jardura, eta portaera-jarraibide gisa sustatzen du birziklapena bultzatzea, hondakinak txikiagotzea eta energia aurrezteko sustatzea.

## **3. atala Zintzotasuna eta Gardentasuna**

### **14. artikulua Jokabide profesional zuzena**

1. IMQ-ren eta langileen jarduna zintzotasun eta profesionaltasun printzipioei lotuko zaie une oro.
2. IMQ-k honela ulertzen du *zintzotasuna*: jardun leiala, zintzoa, fede onekoa, objektiboa eta IMQ-ren interesekin eta Kode Etikoa adierazitako printzipio eta balioekin bat eginda.
3. *Profesionaltasuna* jardura arretatsua, arduratsua, eraginkorra eta bikaintasunera, kalitatera eta berrikuntzara bideratua da.
4. Horrela, IMQ-rekiko leialtasunak hura osatzen duten guztien jarduerak arautuko ditu, eta IMQ-ren interesen arabera jardura eragingo du, eta une oro IMQ-ren irudi ona emango du.

### **15. artikulua. Gardentasuna**

1. IMQ-k uste du informazioaren gardentasuna bere jardura agintzen duen oinarrizko printzipio bat dela eta izan behar duela.
2. Horretarako, konpromisoa hartzen du zabaltzen den informazioa egokia, osoa, fidela eta egiazkoa izan dadin, eta, horretarako, barne- eta kanpo-komunikaziorako egitura eta tresna egokiak ezarriko ditu.

3. Informazioaren gardentasun- eta egiazkotasun-printzipio hori barneko nahiz kanpoko komunikazioan ezarriko da.

#### **16. artikulua. Informazioa**

1. IMQ-ko zuzendaritzak bere helburuen eta plangintza estrategikoen ildo nagusien eta negozioaren bilakaeraren berri emango die aldizka konpainia osatzen duten guztiei.
2. Halaber, jarduerak egiteko behar den informazioa behar bezala zabaltzea sustatuko du, barneko komunikazio-kanal egokien bidez.
3. IMQ osatzen dutenek Konpainiak une guztietan ematen dien informazioa ezagutu eta aztertu beharko dute, bezeroen iritziei arreta berezia eskainiz, ekintzak haien beharrak asetzera bideratzeko

#### **17. artikulua. Interes-gatazka**

1. IMQ-k iritziko dio interes-gatazka dagoela IMQ-ren interesa eta haren zuzendaritza-organoa, zuzendaritza-taldea edo langileria osatzen dutenen interes pertsonala, modu zuzenean edo zeharka, gatazkatzen diren egoeretan.
2. Horren harira, administratzaileak, zuzendariak edo langileak interes pertsonala duela ulertuko da gaiak berari edo harekin lotutako pertsona bati eragiten dionean.

«Lotutako pertsonak» hartzen dira administratzaileentzat Kapital Sozietateen Legearen 231. artikuluan zehaztutakoak.

3. Bereziki, interes-gatazkak saihesteko betebeharrari dagokionez, langileek honako hauei uko egin behar diete:
  - a) IMQ edo haren filialak parte diren transakzio edo eragiketa ekonomikoak egitea edo horietan sartzea, norberaren edo familiaren izenean;
  - b) Konpainiaren izena erabiltzea edo langilea dela aipatzea, eragiketa pribatuak egitean modu desegokian eragiteko;
  - c) aktibo sozialak, Konpainiaren isilpeko informazioa barne, helburu pribatuekin erabiltzea;
  - d) Konpainiaren negozio-aukerez baliatzea;
  - e) Konpainia eta haren filialak ez diren bitartekoen kargua betetzeari lotutako abantailak, konpentsazioak edo ordainsariak lortzea, adetasun hutsagatik direnean izan ezik;



- f) Erakundearekin lehia eraginkorra – egungoa edo izan litekeena – dakarten norbere konturako edo besteren konturako jarduerak garatzea, edo, beste edozein modutan, sozietatearen interesekin etengabeko gatazkan jartzen dutena.
- 4. IMQ-n administratu, zuzendu edo lan egiten duen guztiak leialtasunez eta konpainiaren interesen alde jokatu behar dute beti. Beraz, erabaki profesionalak konpainiaren interesen babes onenean oinarrituta hartu behar ditu, harreman pertsonalek, familia-harremanek edo bestelako interes partikularrek eragin gabe.

#### **18. artikulua. Lanbide-jarduera garatzeko baliabideak eta horien erabilera eta babesa**

- 1. IMQ-k konpromisoa hartzen du Konpainian lan egiten dutenen eskura jartzeko lanbide-jarduera garatzeko beharrezkoak eta egokiak diren baliabideak eta bitartekoak.

Hurrenez hurren, IMQ-n lan egite dutenek konpromisoa hartzen dute beren eskura jarritako baliabideak eta bitartekoak modu arduratsuan, eraginkorren eta egokian erabiltzeko, laneko prestazioak edo prestazio profesionalak betetzeko, beraz, ez dira helburu partikularretarako erabiliko edo aplikatuko.

- 2. IMQ programa eta sistema informatikoen, ekipoen, eskuliburuoen, proiektuen, txostenen eta langileek beren lan-jardueraren esparruan sortu, garatu edo erabiltzen dituzten gainerako obra eta eskubideen jabetzaren eta erabilera- eta ustiapen-eskubideen jabea da.

IMQ-n lan egiten dutenek ezingo dituzte IMQ-ren sistema eta aplikazio informatikoak ustiatu, erreproduzitu, kopiatu edo eman Konpainiatik kanpoko helburuetarako. Halaber, IMQ-k emandako ekipo informatikoetan ez dute instalatu edo erabiliko legez kanpoko programa edo aplikaziorik, ezta IMQ-ren, bezeroen edo bitartekoen irudia edo interesak kaltetu ditzakeenik ere.

#### **4. atala. Konfidentzialtasuna**

#### **19. artikulua. Ezkutuko eta isilpeko informazioa**

- 1. Baimenak eta ezbeharrak izapidetzeko beharrezkoa denez, IMQ-n lan egiten duten batzuek bezeroen osasunarekin zerikusia duten datuetarako sarbidea izateak isiltasun profesionaleko betebeharrak indartua eragiten die, eta, nolana ere, saihestuko dute beren eginkizunak betetzean ezagutu dituzten gertakari edo zirkunstantziak diskreziorik gabe iruzkindu edo behar ez bezala zabaltzea.

IMQ-ren sistema informatikoek bermatuko dute aseguratuen osasun-datuetarako sarbidea behar bezala mugatuta eta kontrolatuta egotea.

2. Horretarako, IMQ-k ezkutuko eta isilpeko informazioaren osotasuna eta konfidentzialtasuna babesteko beharrezko segurtasun-neurriak ezartzen ditu. IMQ-ren jabetzakoa den informazio ez-publikoa, oro har, isilpeko informazio konfidentziala izango da.
3. IMQ-k eta haren langileek beharrezko segurtasun-neurriak ezarri edo, hala badagokio, errespetatu behar dituzte, eta ezkutuko eta isilpeko informazioa babesteko ezarritako prozedurak aplikatu behar dituzte, baimenik gabeko sartzeko, manipulatzeko edo sunsitzeko edozein arriskuren aurrean, barnekoa edo kanpoko, nahita zein ustekabean. Horretarako, IMQ-ko langileek konfidentzialtasuna gordeko dute kanpoko pertsonetikiko harremanetan egiten duten lanaren edukiari buruz.
4. Berriaz ezartzen da ezkutuko eta isilpeko informazioa ematea eta helburu partikularretarako erabiltzeak Kode Etiko hau hausten duela, hargatik eragotzi gabe, halaber, delitu izatea.

Hori dela eta, ezkutuko eta isilpeko informazioa ezagutarazteko arrazoizko zantzu oro Konpainiari jakinarazi beharko diote horren berri dutenek, horretarako ezarriko den kanalaren bidez.

5. Era berean, IMQ-rekiko lan- edo lanbide-harremanari utziz gero, ezkutuko eta isilpeko informazioa itzuli egin beharko dio langileak IMQ-ri, eskuratu duen informazioari dagozkion dokumentuak, efektuak eta gordetzeko gailuak barne.

## **5. atala Bikaintasuna eta profesionaltasuna**

### **20. artikulua. Bezeroak**

1. IMQ-k bezeroei negozioaren funtsezko aktiboa deritze, eta haren helburu nagusia da haien espektatibak erabat betetzea, eta haien gogobetetasuna eta lotura etengabe hobetzen saiatzen da.
2. IMQ-k aseguru-produktuak bezeroen beharren neurrira zuzenduta eskaintzen ditu, kalitatea optimizatzen du, eta langileen artean zerbitzuaren kalitatean eta bezeroarentzako arretan bikaintasuna lortzea lehentasuna izatea bultzatzen du.

Bikaintasuna zera da: gure Konpainiaren etengabeko hobekuntza, gure bezeroek espero baino balio handiagoa sortzen saiatuz

3. IMQ-k kalitate gorenarekin duen konpromisoa lideratu eta bultzatzen du, bikaintasuna eta eraginkortasuna lortzeko beharrezkoak diren baliabideak sustatzen ditu, kontrolaren eta legezketasunaren kultura sendoa alde batera utzi gabe.

### **21. artikulua. Itunpeko profesionalak eta hornitzaileak**

1. IMQ-k onartu eta bultzatzen du itunpeko profesionalakiko eta gainerako hornitzaileakiko harremana elkarrekiko errespetuan eta jokabide etikoan oinarritzea, fede onaren, leialtasunaren, zintzotasunaren, zuzentasunaren, lankidetzaren eta gardentasunaren printzipioek gidatuta.
2. Aurrekoaren ondorioz, IMQ-k balioesten du langileek beren jardura arau deontologikoak errespetatuta egitea, leialtasun, zuzentasun, fideltasun, ardura, sekretu, konfidentzialtasun eta aginduzko arauak betetzeko betebeharretan arreta berezia jarrita.
3. IMQ-k sustatzen du, ahal dela, hainbat hornitzaile izatea, zeinen ezaugarriak eta eskaintako baldintzak une oro egokitzen diren Konpainiaren beharretara eta eskakizunetara, kaudimen tekniko, ekonomiko eta profesionalaren eskakizunak eta IMQ-ren Kode Etikoaren printzipio etikoak eta jarraibideak betetzeko konpromisoa aintzat hartuta.
4. IMQ-k bere itunpeko profesionalen eta hornitzaileen artean Kode Etiko hau ezagutzea bultzatuko du, bertan jasotako printzipioak ahalik eta ondoen aplikatu daitezkeen.

### **22. artikulua. Gizartea**

1. IMQ-k agintariekin, erakundeekin, erakunde gainbegiratzailerekin eta administrazio publikoekin dituen harremanak erakundeakiko errespetuan oinarritzen dira, eta lankidetzaren, profesionaltasunaren eta gardentasun handienaren printzipioei lotuta daude.
2. Oro har, IMQ-n lan egiten duten guztiek IMQ-ren marka, irudia eta ospea babestu behar dituzte, eta marka oker edo baimenik gabe erabiliz IMQ-ren ospea urratu, kaltetu, gutxietsi edo arriskuan jar dezakeen edozein gertaera edota jokabide saihestu behar dute.

### **23. artikulua Akziodunak**

IMQ-k konpromisoa hartzen du akziodunekin dituen harremanak honako printzipio hauetan oinarritzeko: leialtasuna, zintzotasuna, akziodunentzako balioa sortzea, lankidetzaren eta informazioaren gardentasuna.

**6. atala Gizarte-Erantzukizuna**

**24. artikulua Gizarte-Erantzukizunarekiko konpromisoa**

1. IMQ-k erantzukizun sozial korporatiboarekiko eta iraunkortasunarekiko konpromiso sendoari jarraiki garatzen du bere jarduera, aurrerapen eta ongizate kolektiboa bultzatzen duten gizarte-, gobernantza- eta ingurumen-ekimenak babestuz.
2. IMQ Nazio Batuen Itunari lotuta dago, eta Garapen Iraunkorreko Helburuekiko eta 2030 Agendarekiko konpromisoa bere zereginen eta xedean sartzeko apustua egin ere egiten du, helburuek berekin dakarten erronka globalari kolaboratzeko. Era berean, kirolaren, osasunaren, kulturaren, berdintasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-ekintzaren arloetan, besteak beste, hainbat entitate eta erakunderekin batera, mezenasgo-jarduerak eta lankidetzak garatzen ditu.

**III. KAPITULUA KODEA APLIKATZEKO TRESNAK. BERRIKUSKETA**

**25. artikulua Komunikazioa eta zabalpena**

1. Kode Etiko hau hartzaile guztien artean jakinarazi eta zabalduko da, horretarako berriaz onartutako plan baten arabera.
2. Publizitate-helburu berarekin, modu iraunkorrean egongo da eskuragarri, bai intraneten, bai IMQ-ren web-gunean.

**26. artikulua. Kode Etikoa urratzea eta ez-betetzea**

1. IMQ-k Kode Etikoa eraginkortasunez aplikatzeko beharrezko neurriak garatuko ditu.
2. Kode Etikoaren printzipioak eta jarduteko jarraibideak nahitaez bete beharrekoak dira. IMQ-n administratu, zuzendu edo lan egiten duen inork, Konpainian duen posizio hierarkikoa edozein dela ere, ez du eskurik beste batek legez kanpoko egintza bat egiteko edo Kode Etikoan ezarritakoa urratzeko eskatzeko.

Era berean, IMQ-n administratu, zuzendu edo lan egiten duen inork ezin du justifikatu jokabide irregularrik, legez kanpoko edo Kode Etikoan ezarritakoa betetzen ez duenik, hierarkian gorago dagoen baten agindua aitzakia hartuta. Horregatik, Kode Etikoaren arauak ez betetzearen edo irregulartasunaren edozein zantzu hierarkikoki nagusi hurrenari jakinarazi beharko zaio, edo, inguruabarrek hala eragiten badute, Betetze Batzordeari, horretarako ezarritako kanalaren bidez.

3. Kode Etikoa edo beste edozein arau hautsi dela erabakitzen bada, egoki iritzitako neurriak hartuko dira, Informazio-Sistemak eta Informazioak Kudeatzeko Prozeduraren Politikak agindutakoaren arabera.

**27. artikulua. Kode Etikoaren aplikazioaren jarraipena eta kontrola.**

1. Administrazio-Kontseiluaren azken erantzukizunari kalterik egin gabe, IMQ-ren organigraman Betetze Komite bat dago, zeini bere erregelamenduak ekimenerako eta kontrolerako botere autonomoak ematen dizkion, eta zein Kode Etikoaren aplikazioa eta betetzea zaintzeko ardura duen organoa den.
2. Bere erregelamenduaren arabera, Betetze Komiteak honako eskumen hauek izango ditu Kode Etiko honi dagokionez:
  - a) Kode Etikoa zabaltzea, ezagutzea eta betetzea sustatzea, eta haren hedapena gainbegiratzea.
  - b) Kodea interpretatzea eta edukiari, aplikazioari edo betetzeari buruzko kontsultak argitzea.
  - c) Kode Etikoaren betetze-maila urtero ebaluatzea eta dagokien organoei horren berri ematea.
  - d) Kode Etikoa garatzeko eta horren arau-haustek prebenitzeko beharrezkoak diren neurriak eta arauak bultzatzea.
  - e) Komunikaziorako barne-kanalaren bidez bidalitako komunikazioak jasotzea, eta dagozkion ikerketa-espeditentak.

**28. artikulua Komunikaziorako barne-kanala**

1. Konpainiak barne-komunikaziorako kanal espezifiko bat ezarri du, zeinek aukera emango dion erakundeko edonori Kode Etikoa urratzen duten jokabide edo jarrerez edozein proposamen, kexa edo salaketa aurkezteko edo egiteko.

Komunikazioak honako esteka honetan dagoen plataformaren bidez egin daitezke: <https://grupoimg.canaletico.app>. Bestela, edozein proposamen, kexa edo salaketa egin nahi duena Betetze Arduradunarekin harremanetan jarri ahal izango da. Barneko Informazio-Sistemaren Politikak eta Informazioak Kudeatzeko Prozedurak ezartzen dute komunikaziorako barne-kanalaren bidez jasotzen diren komunikazioak kudeatzeko jarraitu beharreko prozedura.

**29. artikulua. Berrikusketa**

1. Kode Etikoa aldizka berrikusi eta eguneratuko da, Betetze Batzordearen urteko txostena, eta egingo diren iradokizun eta proposamenak kontuan hartuta.
2. Kode Etikoa aldatzea dakarren edozein berrikuspen edo eguneratze egiteko, beharrezkoa izango da Konpainiaren Administrazio-Kontseiluak onartzea.

**30. artikulua. Azken Xedapena**

Kode Etiko honek eguneroko jarduerarako jarraibideak eskaintzen ditu, baina ez ditu barnean hartzen kasu edo egoera posible guztiak; horregatik, hartzaileen jokabidea Kode Etiko honetan adierazitako printzipioetan oinarritu behar da, bereziki fede onaren, leialtasunaren, zintzotasunaren, zuzentasunaren, lankidetzaren eta gardentasunaren printzipioetan.